

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Tradizio austriar bat



ARITZ GALARRAGA

Peter Handkek iaz Literatura Nobel Saria jaso zuelarik, zalaparta piztu zen berriro. Bere obraren kalitateagatik akaso? Ez, noski. Bere obran ager daitezkeen iritziengatik agian? Ez, zehazki. Bere iritziengatik apika? Baliteke, Jugoslavia ohiko gerran Serbiaren aldeko posizioa hartu izan duelako, edo, zehatzago, salatu baitu serbiarrak Balkanetako gerrako gaizto bakartzat aurkeztu izana munduaren aurrean, beste batzuek ere ankerkeria handiak egin zituzten bitartean. Handkek ez du sekula biolentziaren apologiarik egin edo gorrotorik bulztatu, zeinak, gaur eta hemen, delitu diren. Ez da negazionista ere, serbiarren ekintza genozidak aitortu ditu eta. Baina anbiguegia izan da, ez aski argia, zintzoen saldoan sartu ahal izateko. Gisele Sapirok, gainera, Handke kokatzen du Karl Krausek abiatutako, eta, besteak beste, Thomas Bernhardek jarraitutako tradizio austriar kritiko, probokatzaille, osasungarri batean.

“Josef Bloch mekanikariari, lehenago futbol atezain ezaguna izan zenari, goiz partean lanera ailegatzean adierazi zioten kanporatua zegoela”. Halaxe hasten zen duela hilabete batzuk Santi Leone adiskideak bidali zidan itzulpena, Literatura Nobel Sariak euskaratzeko beka batera bidali zuena, eta, male-ruski, eman ez ziotena. *Atezainaren larria penalti-jaurtiketan* publikatu dute orain –aldi berean publikatu dute Amaia Apalauzak eta Sonia Kolaczek itzulitako *Erabili goldea hilen hezurren gainetik*, Olga Tokarczukena; gero eta interesgarriagoa jartzen ari da euskarazko literatura-. Eta zalantzarik ez daukat Joxe Mari Berasategiren itzulpena idazle austriarraren mailakoa izango dela. Baina ariketa oso aproposa zatekeen Leonerentzat, orain ez dakit berak ere jasan izan duelako ostrozismora kondenatu duen epaiketa moralik, edo gure idazlarien artean tradizio austriar kritiko, probokatzaille, osasungarriaren ordezkari behinena iruditzen zaidalako baizik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“POZIK GAUDE, AITARI BERE TOKIA EMAN DIOGULAKO”

OTSANDA TOLOSA, AMIANTOAREN BIKTIMAREN ALABA

Urte askotako borroka suposatu duen ibilbide judizialaren ondoren, Otsanda Tolosak epaitegiatako sententzia irmoa jaso du: CAF enpresak 133.665 euro ordaindu beharko dizkio, frogatuta geratu delako bere aita Celestino Tolosa amiantoak hil zuela eta enpresa izan zela kutsatze horren arduradun. Epaitegiak indemnizazioa ordaintzera zigortu zuen CAF, baina honek helegitea jarri zuen. Orain, enpresak atzera egin du. “Sententzia honek amiantoaren beste biktimei lagunduko diela” espero du Tolosak. **2020/12/09**

